

PRESIDENTEAREN GUTUNA ^[2-22]

“Iraunkortasunaren Plan Zuzentzailea 2024. Urtearen amaieran argitaratu zen eta ordutik arlo honetako ikuspegiak eta helburuak lortzeko iparrorratz eta gida bihurtu da, 2026ko Plan Estrategikoaren jasangarritasun ardatzean markatutako norabidea garatuz eta zehaztuz”.



Beste behin, Europa eta Ekialde Ertaineko gatazka arma-
tuak, ezegonkortasun geopolitikoarekin batera, agenda
internazional konplexua markatu dute. Testuinguru
kaltegarri honetaz gain eta klima ekintza finantzaketaren
inguruan akordio egoki batera ez iritsi arren, COP 29¹ko
biltzarrean ziurtatu da ostera, planetak aurre egin behar
dion klima larrialdirako garrantzitsua dela alderdi intere-
satu guztiak integritate eta determinazioz lan egitea zero
emisio garbiko helburua bete arte.

Aldatzen ari diren arau-esparruek eta klima-aldaketaren
azelerazioak azpimarratzen dute jasangarritasuna ez
dela kontuan hartu beharreko faktore estrategiko bat
soilik, aurrerapen ekonomikorako, gizarte-ongizaterako
eta planetaren babeserako funtsezko zutabe bat baizik.

Enpresa-ingurunetik, gure zeregina da enpresa-irtenbide
jasangarrien bideragarritasuna ikusaraztea, ekono-
miaren, ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik, eta
asmo handiko helburuak eta arau-esparruak bultzatzea,
inbertsio berdeak bizkortzeko baldintza egokiak sor
ditzaten.

Testuinguru honetan, CAFen determinazioz aurrera
jarraitzen dugu, mugikortasun jasangarrian gure lidergoa
sendotzeko, gure Jasangarritasun Politikako printzi-

pioek markatutako gida jarraituz eta une oro 2026ko Plan
Estrategikoko helburuekin lerrokatuta egonez.

Gure jasangarritasun gobernanzaren eredu sendoa
erabakigarria izan da ekitaldi honetan ingurumen, gizarte
eta gobernantza arloetan egindako jarduerak orientatu
eta gainbegiratzeko. Alde honetatik, jarduera hauek
nabarmentzen ditugu:

1. Gure lehenengo Finantzaketa Berde eta Jasanga-
rriaren Esparruaren argitaratzea, aktibitate finantzarioen
eta jasangarritasun arloan dugun konpromezuaren
arteko koherentzia indartuz.

2. Gure berotegi-efektuko gasen emisioen helburuen
birdefinizioa, 2026ko Plan Estrategikoan iragarritakoak
baino anbiziotsuagoak izanik eta *SBTi*²-k baliozkotzea.
Helburu berri hauek emisioen murrizketa areagotzen
dute, 1 eta 2 irismeneko emisio absolutuak 2030ean %50
izatek %55 izatera pasatuz.

SBTi-k baliozkotatutako helburuak	2030	2045
CO ₂ emisioen murrizketa. 1 eta 2 irismenak	% 55	Net Zero
CO ₂ emisioen murrizketa. 3. Irismena (produktuaren erabilera)		

¹ *Conference of the Parties* edo Conferencia de las Partes. Estatuak, eskualdeetako erakundeak eta Estatuoko eragileak biltzen dituen Nazio Batuen Erakundeak antolatutako bilerak dira. Kasu honeta, bieleren ardatza klima aldaketa da.

² *Science Based Targets Initiative*.

3. EFRAG³en jarraibideak eta Jasangarritasunari Buruzko Txostenaren Europako Estandarretan (ESRS, ingelesezko siglen arabera) bermatuz Materialtasun Bikoitzaren Azterketa egitea, honela, inpaktu, arrisku eta aukerak kudeatzeko dugun ikuspegi integrala balio-kate guztira zabalduz.

4. Iraunkortasunaren Plan Zuzentzailearen argitaratzea, Materialtasun Bikoitzaren Azterketaren ondorioen erantzun bezala, aldi berean 2026ko Plan Estrategikoaren Jasangarritasunaren ardatz estrategikoa garatzen du, eta gure iparrorratza eta jasangarritasunaren arloko gure ikuspegia eta helburuak lortzeko aldaketa-palanka nagusia da.

5. CAFen jasangarritasunaren kudeaketan funtsezko diren 250 pertsonentzako formakuntza ekintzak egitea, Administrazio Kontseilu eta Jasangarritasun Estrategiako Batzordeak barne. Hau erabakigarria izan da, gai hauen garrantzia ulertzeko kanpo eta barne ikuspuntuetatik.

6. Kudeaketa-eredua indartzea Jasangarritasun Politikaren eguneratzearekin batera, arau errekerimendu, interes taldeen beharren eta kalifikazio agentzien eskakizun berrien ondorioz. Eguneratze honek sistemaren berrikuspen anbiziotsu baten amaiera suposatu du, beste mendeko politika batzuk sortuz, eguneratuz eta argitaratuz urtean zehar.

7. CNMV eta ICACen gomendioak onartzea Jasangarritasun txostena elaboratzeko, Jasangarritasun Korporatiboari buruzko Txostenen Europako Direktiba (CSRD, ingelesezko siglen arabera) berriaren eta Jasangarritasunari Buruzko Txostenaren Europako Estandarren (ESRS) arabera eta 11/2018 legean exijitutako aspektuak eta *Global Reporting Initiative (GRI)* estandarrak gehituz.

2025a nazioarteko eszenatoki konplexu batek markatzen jarraituko du, ziurrenik jasangarritasun arloa Estatu Batuetako gobernu berriak emango dion ikuspuntuaren arabera baldintzatuta egonik. Europaren kasuan, Europako Batzordeko presidentek iradokitako “ómnibus” erreformari adi egongo gara, jasangarritasun arloan adierazgarriak diren hiru lege sinplifikatu ditzakeelako, lege hauek, aurretik aipatutako CSRD, Enpresen Bidezko Diligentzia Jasangarritasun arloetan Direktiba (CS3D, ingelesezko siglen arabera) eta Europar Batasuneko Aktibitate Jasangarrien Taxonomia izanik.

Erronkek jarraituko dutela jakitun, baina gure lidergoa bermatzeko aukerak sortuko direla ere, gure lehentasuna Plan Zuzentzaileko ekintzak burutu eta helburuak lortzean zentratuko da, honela Jasangarritasunaren alde egin dugun apustua indartu eta praktika hoberenak eta ia burutu diren edo prozesuan dauden araudi aldaketak integratuz.


CAFen argi daukagu etorkizun jasangarri, interkonektatu eta seguruago bat sortzen lagundu nahi dugula, non pertsonak ingurunea errespetatuz eta modu eraginkor batean mugitu daitezkeen. Hau da trazatu dugun bidea eta determinazioz jarraituko dugu, ziur gaudelako gure esfortzuak inpaktu positiboak eta iraunkorrak sortzen dituela pertsonen bizitzetan eta planetaren osasunean.

Eskerrik asko gugan konfiatzen jarraitzeagatik. CAF gara, jasangarriak gara.

Adeitasunez,

Andrés Arizkorreta

Administrazio Kontseiluko presidentea.



³ European Financial Reporting Advisory Group.

